

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AXPURUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Abarduia ehiza esparrua sortzeko

Abarduia ehiza esparrua sortzean horretarako ezarri den inguruaren barruan dauden lurzati guztiak sartuko direnez, nola publikoak hala pribatuak, Axpuruko Administrazio Batzarra eragindako lurzati jabeen baimenak biltzen ari da, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horretarako, ulertuko da isilbidezko baimena ematen dutela iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek, eta Administrazio Batzar honek baimena duela ehiza esparruan sartzeko ezarritako epean kontrakorik aurkeztu ez den lurzati edo finka guztiak.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Axpuru, 2016ko azaroaren 8a

Lehendakaria

FELIX LÓPEZ DE URALDE OLALDE